


Heri Aldizkaria

otomotz

2003ko urria 90. alea



Gure baserriak Koldo Cadiernoren begietan

IRITZIZ-IRITZI: IBON GARMENDIA

ERREPORTAIA: UDAZKENA, EHIZTARIEN URTAROA

IZERDI PATSETAN: MIGUEL ANGEL GOMEZ

2003ko irailaren 7a
LXVI. urtea
1.910 zenbakia
2,90 euro

JAVIER ORTIZ: «Araoa Espainiakoa da, nazio proiektu zapuztua baita»

ARGIA



ARGIA


www.argia.com Euskal Herriko astekaria



Prostituten %80tik gora etorkinak dira

Kalea utzi eta pisu eta klubetara joan dira asko

Sexuaren langileak



UNAI ITURRIAGA

«Bertsolaritzan denboratxo baterako nahiko teoria betekada badaukagu»

BETE POSTALA ETA BIDALI!

Ezagutu ARGIA astekari berria

OTAMOTZen ale honekin batera, ARGIA astekariaren 3 ale doan jasotzeko aukera eskaintzen duen postal bat jasoko duzu.

Jakingo duzunez, ARGIA uda aurretik eraberritu zen. Itxuraz eta mamiz berri-tu da: diseinu gaurkotuagoa, itxura gazteagoa, informazioaren antolaketa berritzailea... Iritzi saila ere zabaldu

egin da eta aisialdia eta kultura nabarmendu egin dira. Dena helburu baka-rrarekin; informazioa, analisia eta entretenimendua astero kalitatez eskaintzea euskal irakurleei.

Eskaintza berezia OTAMOTZen irakurleentzat. Berrikuntza hauek direla medio, ARGIA astekariak bere burua ezagutzera emateko kanpaina bati

ekin dio. OTAMOTZek ere, ARGIA 3 astez doan jasotzeko aukera berezi hau eskaini nahi dizue.

ARGIA eraberritua ezagutu nahi baldin baduzu beraz, postala bete eta bidali (ez du seilurik behar). Bestela, 943 37 15 45 telefonora deitu (Xabierrez galdetu) edo zure datuak eta eskaera har-pide@argia.com helbidera bidali.

ARGAZKI ZAHARRA



Hona hemen mojen ikastetxean zebilen neska talde bati 60ko hamarkadan "ekonomatoa" zenaren aurrean ateratako argazkia.

Goian: Dolores Vega, Charo De la Fuente.

Erdian: Isabel Torres, Dolores Bereziartu, Belen Torres, M^a Isabel Igartua, Gorrotxategi.

Behean: M^a Cruz Lekuona, Laureana Calderón, M^a Jesus Burguete, M^a Carmen Etxeberria, Maite Pérez.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte.

Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73.

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.

Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00



OSTATU ITSASO

☎ 943 88 03 15 - Itsaso

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA

943 72 13 70



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

2003ko urria

Euskadiko Toka Txapelketa, XXI. Buzkantza Lehiaketaren barne

Azaroaren 2ko goizean XXI. Buzkantza Lehiaketa, Jose Maria Busca Isusiren omeneko XVIII.a, izango da Zumarragako Euskadi enparantzan. Goizeko 10:30etatik 11:00k arte buzkantza lehiaketako, erakusketako eta salmentako partaideen aurkezpena izango da. Ondoren, 10:30etan, Euskadiko Toka Txapelketa jokatu da. Epaimahaiak 12:00ak aldera buzkantzak probatzen hasiko da eta ordubete berandua-go, 13:00etan, lehiaketako irabazlea eta sarituak nortzuk diren jakinaraziko da. Sari banaketa 13:30etan izango da. Sari banaketaren ordua heldu bitartean, goiz osoan zehar, eskulanean erakusketa, umeentzako tailerrak eta buzkantzen salmenta izango dira Euskadi enparantzan.

Eskola kirolean dabilzan gaztetxoek gurasoentzako liburua

Iraila bukaeran Legazpi, Urretxu eta Zumarragako Udaletako Euskara eta Kirol batzordeek eskola kirola egiten duten haur eta gaztetxoek gurasoentzako argitaratu duten "Gurasoentzako informazioa" liburuxka aurkeztu zen Urretxuko Udaletxean. "Gurasoentzako informazioa" liburuxkaren helburuak eskola kirola hobetzea eta euskararen erabilera sustatzea dira. Horretarako, liburua eskola kirolari buruzko informazioa eta aholkuak eskaintzen dizkie gurasoei.



Filipinarren bisitaldia

Irailaren 30ean "Loboc Children's Choir" Filipinetako haur abesbatzak Zumarraga bisitatu zuen. 26 haurrez eta 14 helduz osatutako taldeari Anton Arbulu alkateak eta Diego Calvo kultur zinegotziak eman zion ongietorria udaletxean. Bertan hurrek zenbait kanta abestu zituzten eta opari trukaketa izan zen. Ondoren, filipinarrek Legazpi Dorretxea eta Antiguako basiliza bisitatu zituzten. Abesbatza honen bisitaldia Filipinar Irletako enbaxadorearen ekimena izan zen. Abesbatza hau Bohol irlekoa da, non Miguel Lopez de Legazpik eta Sikatuna bertako buruzagiak odol-ituna sinatu zuten 1565ean.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

2003ko urria

Gurutz Jauregi urretxuarrak Eusko Ikaskuntza saria irabazi du

Gurutz Jauregi, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzionaleko katedradun urretxuarrak, Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak urtero ematen duten Giza, Kultura, Artea eta Gizarte Zientzien Saria jaso zuen urriaren 8an Donostiako Miramar jauregian. Ekitaldian, besteak beste, Javier Retegi Eusko Ikaskuntzako presidentea, Juan Mari Otaegi Euskadiko Kutxaren presidentea eta Juan Jose Ibarretxe lehendakaria



ria izan ziren.

Aurtengoa Eusko Ikaskuntza sariaren hamargarren edizioa izan da. Jauregiaren aurretik sarituen artean, Julio Caro Baroja, Eduardo Chillida, Aita Villasante eta Bernardo Atxaga izan dira. Gurutz

Jauregiaren lehen lan garrantzitsua ETArene jatorria eta historia aztertzen zuen doktorego tesia izan zen. Ordutik, Euskal Herriko errealitateaz luze eta zabal hausnartu du eta hamabi liburu kaleratu ditu.

Julita Telleriak 100 urte bete ditu



Irailaren 26an Julita Telleria zumarratarrak 100 urte bete zituen. Hori dela eta, Zumarraga-Urretxuko Odol Emaileen Elkartearen ordezkariak eta Zumarragako Udalak ondo merezitako ospakizuna eskaini zioten udaletxean. Areto Nagusian, udal agintariekin eta Odol Emaileen Elkartearen ordezkariarekin batera, Julitaren senitarteko eta lagun asko izan ziren. Omenaldiaren ostean, bazkaria izan zuten Etxeberri jatetxean.

Julita Telleriak oraindik jende askok bere izenaz ezagutzen duen kinkiladenda ireki eta urte luzeetan bertan lan egin zuen. Jubilatu ondoren, mundu osoan zehar bidaiatzeaz gain, Zumarraga-Urretxuko Odol Emaileen Elkartearen ordezkari sortu zuen. 90 urte bete bitartean elkarte honetako lehendakaria izan zen eta makina bat herri-tar odola ematera animatu zuen. Zorionak Julita!

Heri Aldizkaria
Otamotz

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.

Merkea eta ona!

Narmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

ETXABURU
merenda-lekua



S. Barbara bidea
☎ 943 72 22 77
URRETXU



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Mineralogi Astea abian da

Larunbateko txango mineralogikoak Urretxuko XVI. Mineralogi eta Paleontologi Asteari hasiera eman zion. Aste honetan, berriz, haurrek ipuin kontalari saioak eta lurraren sorrerari buruzko bideo emanaldiak dituzte Kultur Etxean. Horrez gain, Juan de Lizarazu erakusketa aretoan eta Kultur Etxeko museoan erakusketa monografiko bana bisita daitezke. Juan de Lizarazun Kutxaespacio-k utzitako meteoritoak ikus daitezke eta Kultur Etxean Alacanteko Emilio Tomicok utzitako itsas trikuen fosilak.

Ostiralean mineral eta fosilekin zerikusia duten hainbat jokoz osatutako haur parkea eta Ederrena pilotalekuko mineralen, fosilen eta harribitxien azoka irekiko dira. Aurten 45 biltzailek parte hartuko dute azokan. Aurtengo ekitaldiko berrikuntza nagusia larunbatean, 22:00etan, izango da Urretxuko Udaletxeko areto nagusian. Bertan, erakusketariei ohiko harrera ofiziala eskaintzeaz gain, mineralogia eta paleontologia munduan ekarpen txalogarria egin duen nor edo nori omenaldia egingo zaio. Omenduak Urretxuko armarría eta bertso batzuk bordatuak dituen zapia jasoko ditu.

Pintura eta argazki lehiaketetako sari banaketa



Urriaren 4an Urretxu eta Zumarragako Udalek urtero antolatzen dituzten argazki eta pintura lehiaketetako sari banaketa izan zen Urretxuko Udaletxeko areto nagusian. Aurtengo partaidetza eta aurkeztutako lanen maila benetan azpimarragarriak izan dira. Euskal Herritik kanpoko hainbat argazkilarik eta margolarik ere euren lanak aurkeztu dituzte.


Pintura lehiaketan 52 lan aurkeztu dira eta irabazlea Idoia Beratarbide oiartzuarra izan da "Oroitzapenezko itzalak" lanari esker. Bigarren saria Jose Manuel Andreu donostiarrak irabazi du "Balcón imposible" lanarekin. Horrez gain, epaimahaiak aipamen berezia eman dio Txomin Pinillari "Euria" lanagatik.

Argazki lehiaketan, berriz, Bartzelona, Alacant, Bizkaia eta Gipuzkoako 38 argazkilarik parte hartu

dute. Guztira 177 argazki aurkeztu dituzte: 104 koloretan eta 73 txuribeltzean. Zuribeltzeko atalean lehen saria Berangoko Javier Pedro Ferrerasentzat izan da "Guamote" lanagatik. Bigarren saria Villenako Manuel Lopezek irabazi du "Simetria" argazkiarekin eta hirugarren saria, berriz, Legazpiko Jose Venegasek "El tren" argazkiarekin. Herriko lan onenaren saria Izarne Torguetek irabazi du "Antio lainotuta" argazkiarekin.

Kolorezko argazkien atalean lehen saria Mungiako Felix Urrutiak irabazi du "Lainopean" lanarekin. Bigarren saria Benito Cantero bergararrak irabazi du "Atxarte II" lanarekin eta hirugarren saria Igor Etxabe beasaindarrak "Segobia" argazkiarekin. Herriko lan onenaren 100 euroko saria Herminia Clementek irabazi du "Palomar" argazkiarekin.

Ferretería **BRAVO, S.L.**



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina
☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31
ZUMARRAGA

Udazkeneko Musika Zikloa

Urriaren 12an Kimets eta Goiargi abesbatzen kantaldiak Urretxuko Udazkeneko Musika Zikloaren hamazortzigarren ekitaldiari hasiera eman zion. Joan den asteburuan, berriz, Bilboko Jatorki abesbatza izan zen San Martin de Tours elizan. Igande honetan, 19:30etan, Villabonako Eresargi Txiki abesbatzaren txanda helduko da. Abesbatza hau bitan zatitua dago:

alde batetik 6 eta 10 urte bitarteko 40 haur eta, bestetik, 10 eta 15 urte bitarteko 52 gaztetxo. Aurtengo Udazkeneko Musika Zikloko azken kantaldia azaroaren 2an izango da. Egun horretan Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan parte hartuko duen Dreseko Dresdner Kammerchor kamera abesbatza entzuteko aukera izango da.

“Agiñeta”-ri eskainitako eskultura inauguratuko da Agiñako jaietan

Ramon Yurrebaso, Jeronimo Iturbe “Agiñeta” eta Iñaki Eizmendi “Basarri”, Ederrena frontoi zaharrean 80ko hamarkadan.



Agiñako jaiak azaroaren 8an, larunbata, hasiko dira. 20:00etan jaiari hasiera emango zaie suziri eta kanpaiekin. Ondoren, nahi duten guztientzat afaria izango da Oleta elkartearen. Afalostean, 22:00etan, trikitilari gazteen txapelketa izango da. Bukatzeko, Eusko-Diskorekin erromeria izango da eta baratxuri zopa jana.

Igandean, 11:00etan, herri meza izango da. Ondoren, aurtengo jaietako ekitaldi nagusia izango da: Jeronimo Iturbe "Agiñeta" aizkolariaren omenez egindako eskulturaren inaugurazioa. Jeronimo Iturbe "Agiñeta" Martiamuno baserrian jaio zen 1900ean eta 1985ean hil zen. 36ko gerra aurreko urteetan Euskal Herriko aizkolari onena izan zen. "Agiñeta"-ren omenezko eskultura Alfa Arte enpresak egin du Oleta elkartearen ekimenez eta Zumarragako Udalaren dirulaguntzaz. Eskultura inauguratu ondoren, Agiñako jaiekin jarraituz, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariek eta Elustondo Anaiak trikitilariak girotutako herri kirol saioa izango da. 14:30etan herri bazkariaren ordua helduko da. Arratsaldean bertsolarien saioa eta erromeria izango dira.

Asteartean, azaroaren 11n, Agiñako bizilagunek eta bertara hurbiltzen diren guztiek San Martin Eguna ospatuko dute. 12:00etan bertan hildakoen aldeko herri meza izango da. Ondoren bertako jubilatuek txikiteoa eta bazkaria izango dute, Lutxurdio trikitilariak alaituta. Bukatzeko, 20:30etatik aurrera, buzkantza eta ardi egosi dastaketa eta erromeria izango dira. Ondo pasa San Martin jaiak!

BIONA

AROTZEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa.

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA


Lanbrea

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52


Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61



Ibon Garmendia

Urretxuko Euskal Jaiari buruz

Otamotzek ematen didan aukeraz baliatu nahiko nuke pasa berri diren Urretxuko festei buruz gogoeta egiteko. Nire helburua honekin lagun artean eztabaida sortzea da eta giro sano batean herriko festez denok hausnartzea.

Urretxuko festen zutabea Euskal Jai eguna dela esan daiteke, eta bertan husten ditu herritar ugari oporretatik dakarren energia gehiena. Lehenik eta behin, esan nahiko nuke alde batetik paradajikoa eta bestetik tristea iruditzen zaidala Euskal Herriaren bihotzean bizi garenok (geografikoki behinik behin) Euskal Jai ospatu beharra, badirudi urtero gogorazi behar diogula geure buruari euskaldunak garela, ez da hala?

Ez dut uste Berlin-en alemanen jai egingo denik edo Erroman italiarren jai, ondo iruditzen zait, ordea, euskaldunek Argentinan euskal jai ospatzea edo gure herrian galiziarrek galiziar jai egitea. Agian izen kontua izango da edota beste era batera aztertuta erresistentzia kontua.

Lehenenago aipatu dut Euskal Jai eguna zutabe dela gure herriko festen egitarauan baina iruditzen zait festa patronalen barruan egoteak mugatu egiten duela, hau da, hirugarren eguna izaki jendeak ez duela hainbeste estimatzen. Beste herri batzuetan gisa honetako jaiak arrakasta handiago izaten dute eta ez karrozen kalitatea haundiagoa delako baizik eta egun osoa delako festaren ardatza. Hor ditugu adibide bezala Zarautz eta Ordiziako euskal jaiak, edota Baztandarren biltzarra. Egunduek guztiak egun solte bat direla dute ezaugarrietako bat eta Urretxukoa ere hala genuen garai batean. Beraz, agian planteatzeko garaia izan daiteke oraingo data festaren onerako ote den edo ez.

Bestetik janzkera eta horrek sortzen duen giroaren inguruan zera esan nahiko nuke, gehien kexatzen direnak euskal jaiaren haserako urteetako euskal jaiak bizi zituztenak eta askoz hobeak zirela diotenak dira. "Bai, orduan denak janzten ginen eta mundu guztiak dantza egiten zuen, orain, berriz, zuek gazteak ez duzue ezer ere egiten, ez da inor ere janzten..... Garaiak eta ohiturak aldatu egin dira eta seguruenik arrazoia izango dute gure gurasoek baina gaur egun baserriarrez janzten ez den giza talde bat baldin badago, hau beraiena da. Goizean igandeko errota dotoreenak jantzi, bueltatxo bat eman ea gazte jendeak zein giro ezartzen duten ikusi eta bapo bazkaldu ondoren karrozen desfilea ikustera, hau da, ikusi eta urteroko saltsa den karroza irabazlea zein izan daitekeen iragartzera, epaile lana egitera, honekin ez dut gazteria zuritu nahi baina bai batzuei pentsarazi.

Karrozen lehiaketa dela eta ez dela urtero izaten dira eztabaidak, batik bat karrozeroen artean. Saria eman eta jendeak bere iritzi azkarra ematen du, "ba niretzat hau hobea zen, zeren eta". Igandean afal ondoren mingainak arin diren bitartean eta baldartzen hasi arte hausnarketa interesgarriak ematen dira kuadrilen artean. Urtero suertatzen zaidan galdera erraza da, zein karroza saritu beharko litzateke, karroza onena edota karroza politena? Hau da, karroza bat ikaragarri polita izan daiteke baina ez baldin badu oinarririk, hau da, ez badu ezer kontatu merezi al du horrek irabaztea? Karroza baten egitura gaia, gurdia eta testuaren arteko borobiltze lana dela iruditzen zait eta ikusleak orokorrean neurtzen duena begi paretik minutu batean pasa berri den karroza polita iruditu zaion edo ez izaten da. Kontuan hartu behar dugu gazte horiek hila-betez ibili direla lanean eta gurdia gainean azaltzen den guztia ez dela kasualitatea izaten.


Bestalde azken urteetan karrozen ibilaldia errepikakor bihurtzen ari dela entzuten ari naiz eta ikusleak aspertzen hasiak direla egitura horrekin. Agian geure buruak astindu behar ditugu eta beste era batera planteatu beharko dugu desfilea. Ez dugu ahaztu behar desfile bat dela eta honek bizia izan behar duela eta garai bakoitzari egokitzen jakin behar duela. Aurten freskotasan berri bat somatu dut erraldoiekin batera ibili diren pertsonaiekin, ikusgarriak iruditu zaizkit eta urtero horrelako berritasunen bat ekartzen bada, luzerako dugula festa hau iruditzen zait. Bestela, urtero era berean jarraitzen badu, badakigu nora joan daitekeen festa hau.

Karrozen kopuruari dagokionez urrezko urteak bizi izan ditugu eta 11-12 gurdi ikustea orain normala iruditzen zaigu baina esan behar da hau 90. hamarkada arte ez zela behin ere eman. Erreleboan datozen belaunaldietan badakigu demografikoki gutxiago direla eta karrozen kopuruaren murriztea normalizat hartu behar dugula, baina esan behar dut aurtengo kuadrilarik gazteenak hirugarren karroza egin duela eta horrek etenaldi baterako arriskua eman dezakeela. Beraz, hainbeste kexatzen zareten gazetxoei eta zuentzat ezer ez dagoela diozuenei zera eskatu nahiko nizuke, egin dezazuela urte batez karroza bat zuentzat ezer ez dagoela eskatuz, bizi ezazue festa barretik eta atsegin ez baduzue esan orduan ez duzuela gus-tukoa eta ez dagoela ezer ere ez gazteentzat.

Ume, gazte eta helduek badugu euskal jaiaren tokia eta gozatzen gehiago asmatu behar dugu, ez al zaizu horrela iruditzen irakurle?


ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Perretxiko bila joatea gustatzen al zaizue?




Vicente Andres

Ez naiz perretxiko bila joaten, baina perretxikoak jatea atsegin dut ordea. Nikalo bila joan izan naiz, baina oso gutxitan.



Istekot Lizarralde

Joaten naizenetan nikalo bila joaten naiz, gainontzekoak ikustea kosta egiten baitzait. Aurrekoan lagunarteko bazkaria izan genuen eta goizean hartutako batzuk eraman nituen.



Angel Etxezarreta

Oso gutxitan joaten naiz, beti lagunekin. Izan ere, ez ditut perretxikoak oso ondo bereizten eta nahiago dut perretxikoak ezagutzen dituen jendearekin joan. Jatea asko gustatzen zait.



Aitor Mendiaraz

Ez naiz gehiegitan joaten, joaten naizenetan denbora asko lurrera begira egonez gero zorabiatu egiten bainaiz. Jatea gehiago atsegin dut bilatzea baino.



Rikardo Ruiz

Ez naiz sekula perretxiko bila joan. Ekarriko dizkizun ezagunik baduzu, ez duzu zertan joan beharrik. Perretxikoak gustatzen zaizkit, baina ezta izugarri ere.



Joseba Peñagarikano

Zaletasuna badut, baina ez dut denborarik. Ahal dudanean joaten naiz, baina Ataun aldera. Izan ere, beasaindarra naiz eta hemengo mendiak ez ditut ezagutzen oraindik.

Montajes e Instalaciones Electricas
HERCE
Electricistas. M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA

Gurritu

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Labeaga 30 ☎ 943 72 27 80
URRETXU

PAKO VIERBUCHER

Ezkontza erreportajeak
Argazki estudio eta artxiboa
Prozesu digitalak
Bideo profesionala
Argazkigintza materiala

Legazpi, 5 ☎ 72 11 55 Zumarraga	Labeaga, 43 ☎ 72 16 81 Urretxu
---------------------------------------	--------------------------------------


URKI

liburudenda



Secundino Esnaola, 3
☎ 943 72 42 98
ZUMARRAGA

Udazkena, ehizta



Udazkenari loturik dagoen kirolik edo zaletasunik bada (norberak izenda dezala nahi bezala), hori ehiza da. Gehienok uda amaiera atsekabez hartzen badugu ere, ehiztariak irrifarrez eta zerura begira ematen diote ongietorria udazkenari. Datozen asteetan herritar asko ia egunero postu zozketetara joango dira eta orduak eta orduak emango dituzte txoriak noiz pasako zain. Ehiza denboraldiaren nondik-norakoak jakiteko Galeperra elkarteko ehiza saileko ordezkariak diren Josean Mendez eta Gonzalo Gil-ekin izan gara.

Inguru honetako ehiztariak usoak, birigarroak eta oilagorrek ehizatzen dituzte batez ere udazkenean. "Usoak urrian hasten dira hemendik pasatzen. Behin uso garaia pasata, jendea birigarrotan hasten da. Dena den, hemengo ehizaren erregina oilagorra da, pinudi itxiak eta inguru hezeak atsegin baititu. Pasekoa da, baina bi edo hiru egun gelditzen da. Urria erdialdean hasten gara ehizatzen eta otsaila amaierarte dago baimendua ehizatzea".

Ez omen da batere erraza, ordea, oilagorrek ehizatzea. "Ehizatzen zailena da eta txakur ona behar duzu hartzeko. Asko jota egunean bi ehizatu ohi dira. Urte oso ona ez bada, denboraldi osoan lau oilagor ehizatuz gero gustura egon zaitezke. Duela laupabost urte, ordea, oilagor-saldo bat sartu zen inguru honetan, lainoak harrapatu zituenez pinudietan gelditu ziren eta jendeak mordo ehizatu zituen".

Ehiztariak eguraldi aldaketa bortitza egotea behar dute txoriak hemendik pasa daitezen. "Txoriek eguraldi aldaketa datorrela nabaritu bezain pronto joaten dira beste toki batera negua pasatzera. Dena den, egun uso asko ez dira mugitzen edo Araba aldean gelditzen dira janaria aurkitzen badute. Negu gogorra ez badator ez dira mugitzen. Ehiztari batzuk presio aldaketari begira egoten dira txoriak etorriko diren jakiteko, baina ez da beti asmatzen. Lehen usoak Pilarica egunean hasten zirela pasatzen esaten zen, baina urteak dira ez direla hain goiz heltzen. Azken urteotan urria amaieran heldu dira uso-saldo onak".

Uso-saldo onak urria amaieran eta azaroa hasieran pasatzen badira ere, ehiztari asko egunero joaten dira postuetara. "Ahal dutenak denboraldian zehar egunero joaten dira. Uso-saldoa joaten denari tokatzen zaio. Normalean, astegunetan, joan nahi duten guztientzat nahikoa postu izaten dira".

Dena den, geroz eta arazo gehiago omen daude postuen kontura. Hori dela eta, aurtengo denboraldiaren prestaketa korapilatsua izan da. "Federazioak lursail jabeen laga-

orien urtaroa

pena izatea eskatzen digu ehiza elkarteei lursail hoietan dauden postuen zozketa egin ahal izateko. Iaz Jon Mikel Murua nekazaritza diputatuak jabeei euren lurretan zeuden postuen %20 eman behar zitzaizela zion legea atera zuen. Zenbait ehiztarik diru asko eskaini zieten lur jabeei postu horien truke eta lurjabe batzuek postu onenak nahi zituzten diru gehiago atera ahal izateko. Diputazioak nahi zituzten postuak aukeratzeko utzi zien azkenean. Ehiza elkarteok ez geunden lege horren kontra, baina %20 horren banaketan akordio batera heldu behar zela uste genuen. Ehiztariaren etsairik handiena ehiztaria bera dela esan ohi dugu. Horrela jarraitzen badugu, aurki dirudunek soilik ehizatu ahal izango dute. Patxiren garaietan bezala, gainontzekoek isilean aritu

“Horrela jarraitzen badugu, aurki dirudunek soilik ehizatu ahal izango dute”

behar dute. Merkatu librea nahi duenak Otzaurteko enkanteko postuetara joan dadila! Hango postu onenengatik 10.000 euro inguru ordaintzen ari dira jada!”.

Dena den, aurten legeak ehiza elkarten alde egin du: nekazaritza diputatu berriak lursail jabeei postuen %20a ematen zien legea indargabetu du. Baina lursail jabeek ez omen dute amore emateko asmorik. "Iaz lursail jabeek legea alde zuten eta ehiza elkarteok amore eman genuen. Aurten, berriz, legea gure alde dago eta jabeen elkarteko kideak diren lursail jabeek ez digute lursailen lagapena eman nahi datozen urteetako negoziaketetan indar handiago izateko. Honela, euren postuetan ez da

batare ehizatuko. Aurten, Galeperrak dituen 56 postuetatik 27 soilik zozketatu ahal ditugu”.

Josean eta Gonzalo penatuta ageri dira. "Galeperrak jendeak ehizatzeko tokia izatea besterik ez du nahi. Gure postu ilaran ehizatzen duen jendea kontrolatua dago, baina norbaitek gure ardurapeko postuetatik kanpo ehizatzen badu ez dakigu zer egin dezaketen... Hemengo baserriarrek guk postu guztien ingurua zaintzea nahi dute, baina horretarako lagapena eman behar digute. Ez badigute ematen, zaindu dezala lurjabe elkarteak utzi ez dizkiguten postu horien ingurua... Gure postuetan galeraren bat sortzen bada lursail jabeei diruordaina ematen zaie, denboraldia amaitu ondoren mendia garbitzen dugu, pista erabiltzeagatik eta kotxeak aparkatzeagatik jabeei ordaindu egiten diegu, urte amaieran afari bat eskaintzen diegu...”.

Gastu hauei guztiei aurre egiteko postu zozketak dira diru iturri nagusia. "Denboraldian zehar egunero hurrengo egunerako postuak zozketatzen ditugu. Ostiralean, larunbat, igande astelehenerako zozketak egiten ditugu. Bazkideek zozketako bi euro ordaindu behar dute eta bazkide ez direnek hiru euro. Ateratako diru guztia postuak mantentzeko, aseguruak ordaintzeko... erabiltzen dugu. Postuak zaintzeko eta legez ehizatuko dela ziurtatzeko ehiza elkarteak baino hoberik ez dago”.

Izan ere, ehiztari mordoak daude inguruotan eta norbait arduratu behar da antolaketa lanaz. "Iaz 55 postu zozketatzen genituen eta egun askotan 150 ehiztari etortzen ziren zozketetara, baita Azkoiti eta Azpeitikoak ere. Ezkio pase toki hobea denez, zozketetan 200 ehiztari elkartu izan dira. Aurten Galeperrara ez dira hainbeste ehiztari etorriko, lurjabeek utzi ez dizkiguten postuak onenak baitira”.

Ehiztariak, postuen kontura dituz-


MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak
Labeaga 52-54 F URRETXU
☎725682 ☎722292



BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuk, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎943 726274
ZUMARRAGA



Josean (zutik ezkerretik lehena) eta Gonzalo (makurtuta azkena, Galeperrako lagun batzuekin batera, ehiza egun baten ostean.

ten arazoez gain, euren txakurrekin zeri-kusia duen beste kezka bat ere badute. "Herriko ehiztari askok txakurra dugu, nahiz eta txori mota batzuk ehizatzeke ez den beharrezkoa. Beasain-Durango errepideko eta Kanpitoko obrak direla eta, txakur-etxola asko bota dira. Udalak txakurtegia egiteko laguntza eskaintzea gustatuko litzaiguke. Albaitaria bertako garbitasun eta osasun baldintzak zaintzeaz arduratuko litzateke eta txakurren jabeek zenbait betebeharrak izango lituzkete. Oporretan txakurra non utzi ez dutenentzat ere baliagarria izango litzateke".

Txakurra dutenek txakurra zaindu, materiala erosi, denboraldian zehar ahal den guztietan ehizatzen joan... ehiztariak pasioz bizi dute euren zaletasuna. Zerk egiten ote du ehiza hain erakargarria? "Giroak batez ere. Ehiztari asko ehiza garaian soilik irteten dira poteatzera: zozketara etortzen dira, lagun batzuekin elkartzen dira eta, azkenean, pote ba-

tzuk hartzen bukatzen dute. Gure postu ilaran ere oso giro ona izaten dugu: postu

Ehiztariei txakurra duten guztientzat txakurtegia egitea gustatuko litzaieke

batetik bestera joaten gara hamaiketako hartzera, mendizaleak gonbidatzen ditugu...".

Ekologista batzuen ustez, ordea, ehiza ez da horren jardura *polita*. "Gu gara ehiza ez bukatzea nahi dugun lehenak. Ehiza gorroto duen batek mendira joan eta *zein faisai ederra* esaten duenean grazia egiten digu. Izan ere, faisaiak, epe-rrak... guk askatzen ditugu eta gu arduratzeko gara beraiek zaintzeaz. Egia da ehi-

zatu ahal izateko askatzen ditugula, baina arkume asko ere hiltzeko hazten dira eta horregatik ez da espeziea akabatuko. Desagertzeaz dauden espezieak ez ditugu ehizatzen. Gu gara eskopeteroak salatzen lehenak. Goarda gehiago egon beharko liriteke eskopeteroak zigortzeko".

Josean eta Gonzalok argi utzi nahi dute, gainera, ez direla ehizan aritzen animaliak nola hiltzen diren ikustea gustatzen zaie-lako. "Ez dugu uste norberak ehizatzearen eta harategira erostera joatearen artean alde handirik dagoenik, harategikoa ere norbaitek hilko zuen. Batzuek asasinok garelako esaten dute, baina guretzat ehizatzea kirolean aritzea da. Ez gara plater-tiroan aritzen platerak nola hausten diren ikustea gustatzen zaigulako, tiro kirolariak garelako baidir".

Kirolari hauen guztien artean, goi mailakoak ere ba omen daude. "Inork ez dakien arren, Galeperrako Santiago Bernardo txakur hezitzaileak Espainiako txapelketa mordoa eta Europako txapelketaren bat irabazi ditu bere txakurrekin. Espainiako txapelketetan Euskal Herriko ehiztariok sari asko irabazten ditugu. Izan ere, hemen ehiza gutxi dago eta txakurrak oso azkarrak izan behar dute ehizakia altxatzeko".

Galeperra elkartean ehiztari asko eta onak dauden arren, Josean eta Gonzalo kezkatu ageri dira elkarteko ehiza sailaren etorkizunaz hitz egitean. "Gu biok urte mordoxka daramatzagu ehiza sailaren ordezkari lanetan. Denbora asko kentzen digu eta etxeokoin eztabaidaren bat edo beste ere izaten dugu, baina inork ez du ardura hau hartu nahi eta utziko bagenu plater-tiro eta ehiza lehiaketak antolatzeari utziko litzaioke. Jendeak laguntzeko prest dagoela esaten digu, baina ardura hartuko duen nor edo nor behar dugu".


Koldo Cadiernok Zumarragako baserri guztiak, guztira 66, marraztu ditu azken urtebetean Zumarragako Udaleko Nekazaritza Batzordearentzat. Udalak baserriarrei euren baserriari dagokion marrazkiaren kopia bana emango die eta marrazki guztiak Itarte Etxean ikusgai jarriko ditu. Koldori, marrazki hauen

aitzakiaz, baserriari, euskal tradizioei eta euskal kulturari buruzko hausnarketa piztea ere gustatuko litzaioke. Koldok berak luze eta zabal hausnartu du azken urtebetean gai hauen inguruan. Berarekin izandako elkarrizketan hausnarketa honen berri eskaini digu, besteak beste.

Gure baserriak Koldo Cadiernoren begietan



Aizpuru baserria. Argazkia: Ainara Galán.



Balantza orekatzeko ahalegina

Gizonezko eta emakumezkoen aukera berdintasuna bultzatzeko jaio den Eraldatzen elkarteak lehen ekitaldi publikoak antolatu ditu udazken eta negu honetarako, Zumarragako Udalaren eta Emakunderen laguntzaz. Ekitaldi hauek guztiek emakumeek gure herrietan bizi duten egoeraren analisisa egiteko balioko dute.

Eraldatzen elkarteak Urretxu eta Zumarragako emakume batzuek sortu dute aurtengo urte hasieran. Elkartearen helburu nagusia gizonezko eta emakumezkoen aukera berdintasuna bultzatzea da. Horretarako ezinbestekotzat jotzen dute gure udaletan berdintasun planak erredaktatzea, onartzea eta aurrera ateratzeko baliabide guztiak eskaintzea.

Antolatutako ekitaldiez, orain arte betetako ibilbideaz eta etorkizune-

an eman behar dituzten pausoez hitz egiteko elkarteak kideak diren Arantxa Corralesekin eta Ana Belen Peredarekin hitz egiten izan gara. Eraldatzenek antolatutako lehen ekitaldi irekia, azaroaren 8rako, berdintasuna lortzeko eskualdeko forua da. "Foru honek bi zati izango ditu: goizean asoziazionismoaren egoeraz hausnartuko dugu eta arratsaldean emakumearen egoeraz. Azterketa bata zein bestea eskualde mailakoak izango dira. Bertan orain arte abian jarri ez

diren konponbideak mahaigaineratzea gus-
tatuko litzaiguke. Forua 9:00etan hasi eta
19:00etan bukatuko da, baina jendeak sar-
tzeke eta irteteko askatasuna izango du".

Bigarren ekitaldia, azaroaren
19rako, tratu txarrak eta gehiegikeriak an-
tzezan eta aurrikusteko tailerra da.
17:00etatik 20:00etara bitartean izango den
tailer hau Yolanda Cervero psikologoak eta
Nilda Gorvein Eraldatzeneko lehendakari-
ak zuzenduko dute. "Tratu txarrak eta
gehiiegikeriak toki eta gizarte maila guztie-
tan ematen dira. Hemen bertan gehiegike-
ria kasuak daude eta Zumarragan tratu txar
larrien kasu bat dago. Kasu honekin zer
egin zitekeen jakiteko gurekin harreman-
tan jarri ziren eta guk alkateari horren berri
eman genion. Oraingo ez da gehiegi egin
arazo hori konpontzeko, baina guk ezin
dugu gizarte laguntzaile lana bete".

Eraldatzenekoek oraingo antola-
tu duten hirugarren eta azken saioa Nilda
Gorveinek eskainiko duen adin ertaineko
eta hirugarren adineko emakumeen eskubi-
deei buruzko ikastaroa da. Ikastaro hau
urtarrilaren 14an, 21ean eta 28an izango
da, 17:00etatik 20:00etara. Ana Belen eta
Arantxaren hitzetan, "geroz eta hiruga-
rren adineko jende gehiago dago. Hauen
arte emakumezkoek egoera bereziki
larria bizi dute, alargun gelditu eta pobrezia
bizi diren asko baitaude. Nilda abo-
katua da eta zein eskubide dituzten azal-
duko du".

Eraldatzenek antolatutako eki-
taldiak Zumarragako Gizarte
Zerbitzuetako balioanitzeko
aretoan izango dira
(Euskadi enparantza, 6an)
eta beraietan gai hauen
inguruan interesa duen orok
parte hartu ahal izango du.
Saio hauetan izena emateko
630 611 181 telefonora
deitu edo
eraldatzen@ozu.es helbide
elektronikora mezua bidali
behar da. Partehartzaile
guztiek asistentzia agiriak
jasoko dituzte.

Ekitaldi hauek

guztiak Zumarragako Udalaren laguntzaz
antolatu dituzte, baina Urretxuko eta
Legazpiko Udalekin ere lan egiteko asmoa
dute. "Bi esparrutan lan egiten ari gara,
kale mailan eta udaletxe mailan.
Udalbatzak osatu berriak dira eta lehen
bilerak izaten ari gara. Beraien konpromi-
soa eta partaidetza nahi dugu. Udalak
herritarrengandik oso gertu daude eta herri-
tarrentzat eredu izatea nahi genuke. Baina
hemengo udal askotan ez daude oraindik
berdintasun eragileak eta baldin badaude
ez daude behar adina sentsibilizatuak eta
prestatuak. Horrela oso zaila da emakume-
ak udaletara laguntza bila joatea. Hutsune
hauek direla eta sortzen dira elkarteak,
udalei euren betebeharrean bultzatzeko eta
laguntzeko. Gure helburu nagusia berdinta-
sun planak bultzatzea da. Zumarragan ber-
dintasun plana erredaktatu zen, baina azke-
nean ez zen onartu. Arrasaten, esaterako,
hirugaren berdintasun plana aurrera atera-
tzen ari dira jada. Hemen, ordea, ez dago
interes handirik".

Herritarrok ere oso gutxi egin
dugu orainarte emakumeen eskubideen
alde. Eraldatzen elkarteko bultzatzaileeta-

"Udalak herritarrengandik oso gertu daude eta herritarrentzat eredu izatea nahi genuke"

ko batzuk hona bizitzera etorritakoak iza-
tea oso esanguratsua da: Ana Belen Pereda
bilotarra da, Nilda Gorvein argentinarra
eta Arantxa Corrales, berriz, urteetan kan-
poan bizi izan den zumarratarra. "Hona
heldu nintzenezan gai honen inguruan zer
edo zer egin nahi nuen eta talderik ez zego-
ela ikusi nuen. Mairi taldeak lan handia
egin du eta emakumeak etxetik ateratzea
lortu du, baina beraien helburuak guren
guztiz ezberdinak dira", dio Ana Belenek.

Talde sortu berria izanik, orainar-
te, ezagutzera ematen izan dute lanik han-
diena. "Jendeari egin nahi duguna ulerta-
ratzea da zailena. Lagun bati
Eraldatzeneko kidea nintzela esan nionean
(Ana Belen), feminista naizelako mutilaguna
nitaz kokoteraino izango dela esan
zidan. Feministak gara, emakumeen esku-
bideak defendatzen baititugu, baina gizo-
nezkoen partaidetzarekin defendatu nahi
ditugu eskubide hauek".

Lehen hilabete hauetan, elkarteak
ezagutzera emateaz gain, bazkideak lortzen
saiatu dira. "Emakume askorekin hitz egi-
ten ari gara, baina Mairi bezalako elkar-
teetan lan egitea errazagoa da. Dena den,
gure asmoa ez da milaka bazkide izatea
baizik eta bazkide izango direnen lanera-
ko konpromisoa lortzea. Arazoak edo
jakinmina duten emakumeentzat errefe-
rentea izan nahi dugu".

Bazkideez gain, gizarte eragileek
eta elkarteek ere proiektuan parte hartzea
nahi dute. "Beste helburu bat eskualde
mailako lan sarea sortzea da. Ekainean
hitzaldi bat izan genuen
eskualdeko elkarteekin eta
jende dexente etorri zen.
Orainarte elkarte gehienok
gure kabuz lan egiten
genuen, baina orain elkarlana
bultzatuko duen koordinado-
ra sortzeko ahaleginak egiten
ari gara. Lortzen badugu oso
garrantzitsua izango da elkar-
te guztiontzat presio, partai-
detza... aldetik. Baina, gauza
hauek ez dira egun batetik
bestera egiten, are gutxiago
partehartze kultura handia ez
dagoen eskualde honetan".



Eraldatzen elkarteko Arantxa Corrales,
Ana Belen Pereda eta M^a Jesus Etxaniz.



Gertatutakoak beti, norberak memorian eta gogoan gordetzen dituen arren, egun, bada joerarik egindakoa jada, iraganaren edo lehenaldiaren zati delako, baztertzeko eta ahazteko. Badirudi zahar dena ez dela irakaspide guretzat, ez dela oraina bizitzen ari garenontzat lokarri estu eta sendo; onartu behar dut hau guztiz kezkarria dela. Gure zaharrek irakatsitakoa eta irakasten digutena beti da garrantzitsua, bizipen samurra baita, erne eta adi eginez gero. Txalogarriak iruditzen zaizkit herriko kultur talde askoren emankizunetan inoren jarduna edo lana kontuan hartzen denean, bizirik edo hilik badago ere; neurri batean maite zen isla edo adierazgarria ere bada. Garrantzitsuena horixe da: gogoratzea eta gogoratuz goratzea, ez dago gauza bikainagorik. Nik horixe egin nahi dut Otamotzek, esker onez, eskaini didan zutabetxo honetan, poeta zumarragar baten jaiotzaren berrogeita hamarrurena oroitu, Gotzon edo Anjel Alemanena alegia. Bitxia da baina,

berrogeita hamar urte dira jaio zela eta hogeita bost hil zela ere bai. Aukera bikoitza badut beraz, zilarrez edo urre kolorez janzteko data biok.

Gotzon Alemanen irudia duinduz

1953. urtean jaio zen Zumarragan eta 1978.ean hil Donostian. Gotzon ezagutu izan ez duenarentzat zaila da bizi ez dituen bizipenetatik abiatzea; baina bada modu ederrik hori ere egiteko, Gotzonek utzitako ondareaz baliatzen bagara, alegia, "Iraganaz" berak idatzitako liburua irakurri. Liburutik norberak ondorio desberdinak ateratzen ditu, aurrean antzeman deza ke kartzelan atxilotuta egondakoaren sufrimendua, euskara ikastera bultzatu zuen gizon azkar baten konpromisoa, garai gogor haietako zapalkuntza jasan zuenetako norbaiten bizipenak, egunerokotasunaren zama, amodioa, askatasunaren irrika bizia bereak egin izan nahi zituen giza-eragile baten gazi-gozaok...

Errealitateak gogor kolpatutako gizon sentibera honen kezka ez zen eskolaren barruan egotera mugatu, ikusten da makina lanetan aritu izan zela zartatua eta erdibitua zen gizarte hartan; harremanak izan zituen egun konsagratuak eta ospetsuak diren idazleekin, adibidez Joan Mari Irigoienekin, Santo Tomas Ikastolan irakaskide izatetik elkar ezagutu zuten ("Iraganaz" liburuan Joan Marik berak hitzaurrea idatzi zuen eta "Udazkenaren balkoitik"-ean, Juan Mariren liburueta baten, bertako pertsonaia bat Gotzonen izaeran oinarritua dago). Musikari gagozkiola, Txomin Artolak bere diska batean

"Ttakun-ttakun" diskan, Gotzonen hainbat olerkiri ahotsa jarri zien, esate baterako: "Bahoa urrutirat", "Ez dakit zer ordu izango den"... abestiei. Hori gutxi ez balitz, garai hartan eskolan "Lauso" antzerki taldea sortu zuen eta Bergan, Bartzelonako ifarraldeko herri batean, egindako antzezlana batek arrakasta izan zuen ("Iraganaz" liburuan bada Gotzonen antzezlana labur bat, genero hau ere idazten zuen seinale).

Asko maite duenak, asko daki eta asko egiten du; ez bortxaz egin beharrik, ez du nahita zein nahigabe ezer agertu behar, berariaz irteten zaio, bera hala delako, beregan Maitasuna ari baita. Hits eta Fits taldeak, Legazpi Dorretxean, 1995eko ekitaldi hunkigarri batean, bertan izan zituen Joan Mari Irigoien eta Txomin Artola bere adiskidearen berri ematen. Ez genekizkien gauza asko partekatu eta konpartitu genituen Joan Mariren hitzei, Txominen kantuei esker. Gotzonen Zumarragako eskolako, gau eskolako ikasle, lagun askoren ekarpenik ere izan zen eta Hits eta Fitseko kideek olerkiak errezitatu zituzten. Hori da egin genuena, idazlea oroitu, hori da egiten ari garena oraintxe bertan, hori da egin behar genukeena, beti, gure izate honen traspasentzia era beteago, batuago eta kontzientean bizitzeko.

Memoria ez dezagun lokartzen utzi, gure iragana orainarekin ernetu deza-

gun. Mendata herriko poetak, Bitoriano Gandiagak beti esaten zuen: "Gizon handiak herri xeheetik sortuak dira, delako gizon handiak herri xehe zati direla jakinik, herri soilik gabe ez baitago izen ospetsurik".

Zumarragarik, Urretxurik gabe ez dago Iparragirrerik, Gotzon Alemanik... Idazleok, nonahi direlarik, bihotz zati horretatik zabaltzen dute egia garrantz horren samina. Horixe egin zuen Gotzonek garai batean eta baita egiten dihardu, bera irakurtzen dugunean.

Apaltasun osoz gorde dezagun geure herri xehea, geure herritarrak eta egunero isilpean herri izateko lanean ari diren gizon-emakume xume horien lana. Bidenabar, Elkar argitaletxean agortu zeneko liburu hau berrargitaratzeko kodeaketa bi udalek bideratzea ez legoke gaizki, zumarragar-urretxuarrek, zein olerkizaleek Gotzon Aleman zein zen jakiteko.

Bukatzeke, hemendik agurtu nahi nituzke Gotzonen etxeok eta zoriondu semea, joanda ere, ematen duena ematen ari delako. Hari egindako eskaintza izan bedi zuentzat oroitz-hitz pozgarri. Bejondaizuela!

Andoni Salamero

ZORIONAK!



Ainhoa, ea argazki berri bat uzten diguzun, hau jada horituta dago eta! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Alba, esaiozu argazkilaria hurrengoan eguzkiarekin kontuz ibiltzeko! Zorionak eta ondo pasa!



Amaia, eskolan hasi zinen egunean atera al zizuten argazkia? Hori da hori haserre aurpegia! Zorionak!



Amaia, porrak aspaldi bukatu ziren! Hori da hori turista itxura duzuna! Zorionak eta ondo ibili!



Jon, hori da hori seriotasun aurpegia! Aita errieta egiten ari al zaizu Realekoa zarela esan diozulako? Zorionak!



Amaia, hori da hori irrifarrea! Zuri ere, "famatuei" bezala, ordaindu egiten al dizute argazkilariek? Zorionak!



Beñat, ez dirudi argazkia ateratzeko irrikitan zeundetik... Zuk ere argazkilariek ordaintzea nahi al duzu? Zorionak!



Enrique, dirudien bezain txintxoak zara ala disimulan al zabilta? Nork daki... Zorionak!



Esteban, Zumardiko karta jokoan galdu egin al duzu? Hori da hori atsekabe aurpegia! Zorionak!



Irati, hori da hori bihurri aurpegia duzuna... gurekin argi ibili gero! Zorionak eta ondo pasa!



Joaquín, horiek dira horiek begiak... argazkia eztei bazkariaren ondoren atera zizutela dirudi! Zorionak!



Jon, lotsati samarra zarela dirudi... aurki galdu beharko dituzu lotsa guztiak! Zorionak eta ondo ibili!



Ellande, hori da hori morroskoa egina zaudena! Californiako gobernadore berriak ere ez zuen halako itxura zure adinarekin!



Laida, gimnasia egiten ari zara ala lumbagoak jota al zaude? Argazkilaria zorabiatuko duzu! Zorionak!



Maikel, aiton-amonen moduan "mesanotxe" gainean utzi al dituzu hortzak? Zorionak eta ondo ibili!



Maite, ez itzazu serio itxurak egin, bihurri samarra zarela badakigu eta! Zorionak eta ondo ibili!



Eva, zu ez zaitugu zirikatuko, ez dugu udaltzaingoarekin arazorik izan nahi eta! Zorionak eta ondo ibili!



Maria Jesus, eskerrak garaiz konturatu zinen bizkarra ematea edukazio txarrekoa dela... Zorionak!



Miguel Angel, urtero trajea soinean duzula agertzen zara... perretxiako bila ere trajea jantzita joaten al zara? Zorionak!



Mikel, aurten ere hortzak estuturik harrapatu zaitugu... ez al duzu oraindik komuna aurkitu? Zorionak!



Mikel, Armani-k zurekin ez du negozio handirik egingo... beti traje bera soinean duzula ageri zara! Zorionak!



Nora? Ahora! Ahoa ixten ez baduzu txoriren bat luma eta guzti jango duzu! Zorionak eta ondo ibili!



Pablo, emaikiozu Maikeli hortz batzuk premia larria du eta! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Igor, Urretxuko jaietan ez zintugun ez horren serio ikusi... Oraindik burua altxatu ezin al zabilta? Zorionak!



www.megadenda.com



Megadenda
zure aukera musika eta liburuan



Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50



Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Fermin Calbeton, 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50



Miguel Angel Gomez

Irailaren 27an Miguel Angel Gomez boccia jokalaria urretxuar handiak ondo merezitako omenaldia jaso zuen EILUZek Urretxuko Udalaren laguntzaz antolatutako Kirol Jardunaldi Integratzaileen barnean. Miguel Angel Gomez 1989an hasi zen petankaren antzekoa den kirol honetan jokatzen, ASPACEko garun-elbarrituen gurasoek Dordoka kirol elkartearen sortu zutenean. Betidanik ikasteko eta gizartean integratzeko erakutsi duen kemenari esker, besteak beste, Espainiako Txapelketa bat irabazi du eta Espainiako selekzioarekin taldekako munduko txapelduna izan da bi aldiz. Horrez gain, Atlantako paraolinpiadetan ere parte hartu zuen. Orain, txapelketak utzi eta Dordoka taldean entrenatzaile lanetan hasi da.



Miguel Angel ez zen txapeldun handia izateko asmoz hasi kirolean, aisialdi denboran zerbait egiteko asmoz baizik. "1989an hasi nintzen boccian jokatzen, Gipuzkoan Dordoka taldea sortu zenean. Ordurako 29 urte nituen eta nire asmoa ez zen txapelketetara joatea, gauza berri bat frogatzea baizik".

Izan ere, Miguel Angelek beti ahalik eta jarduera gehienetan parte hartu du eta gizartean integratzeko ahalegin handiak egin ditu. "9:00etatik 17:00etara ASPACEN lan egiten izaten nintzen, baina arratsaldean ez nuen zeregin handirik. Betidanik ahalik eta talde gehienetan parte hartzen saiatu naizenez, kirolean are aritzea erabaki nuen. Anaitasun taldean, EILUZen... ere parte hartzen dut".

Imanol Garrok, eskualdeko ASPACEko arduradunak dionez, Miguel Angelen kide askok aisialdian zer edo zer egiteko arazo handiagoak izaten dituzte. "Miguel Angelek bere aldetik asko jartzen du eta, gainera, gauza ezberdinak egiteko ahalmen handiagoak ditu. Laguntza gehiago behar dutenek arazo gehiago dituzte eta kirolean aritzea oso onuragarria zaie".

Imanol bera izan zen Miguel Angelen lehen entrenatzailea. "Dordoka taldearen lehen fasean ez zeuden egun bezainbeste bolondres. Hori dela eta, ASPACEko profesionalak izan ginen lehen entrenatzaileak edo laguntzaileak".

Ordutik, Miguel Angelek makina bat txapelketetan parte hartu du. Hauen artean garrantzitsuena Atlantako paraolin-

pidada izan da. "Aurreko urtean Sidneyko munduko txapelketan izan nintzen, ez nintzen konturatzen paraolinpiada batean parte hartzea zein garrantzitsua den. Gerora konturatu naiz kirolari batentzat lehiaketa gorena dela. Oso esperientzia polita izan zen. Mundu osoko 100dik gorako herrialdeetako 5.000 kirolarik parte hartu genuen".

Munduan zehar ibili arren, Miguel Angelek ez du turismoa egiteko aukera handirik izan. "Gehienetan finalaletara heltzen zenez, aireportuak eta kiroldegiak ezagutzeko aukera besterik ez zuen", dio Imanolek. "Kiroldegietan ordu asko ematen nituen. Partida ia guztiak ikusten nituen, arerioek nola jokatzen zuten ikusteko eta beraien aurka zein estrategia erabili

ezina ekinez egina

erabakitzeke".

Imanolek dionez, Miguel Angelek burubelbarri prestatzen ditu entrenamenduak eta partidak. "Miguel Angel, oso pertsona zentzuduna izateaz gain, irmoa, langilea eta arduratsua da lantzen dituen alor guztietan. Dohai fisikoak izateagatik baino, hauengatik guztiengatik heldu da dagoen tokira. Entrenatzaileak izan dituen arren, teknika, estrategia... hobetzeko asmoz berak kontrolatzen zituen bere entrenamenduak, ordenadorean entrenamenduetako datuak sartuz".

Miguel Angelek profesionalak adinako ardura eskaini dio boccia jokoa-ri, baina truke ere zer edo zer jasoko zuen... "Jokoan hobetzeko egin dudana ahaleginari esker, dudana onena atera ahal izan dut. Lan honi esker zazpi aldiz heldu naiz Espainiako Txapelketako finalera. Final gehienetan parte hartu duena naizela uste dut".

Behin palmares bikain hau lortuta, hamalau urte ostean, Miguel Angelek lehiatzeari uztea erabaki du eta entrenatzaile lanetan hasi da. "Jada ez naiz garai batekoa. Asko entrenatu arren, jada ez nuen nire burua seguru ikusten txapelketetan. Hori dela eta, astean hiru egunetan Lizeo azpian Urretxuko ASPACE zentruko lau lagun entrenatzen hasi naiz. Entrenatzaile lana erronka da niretzat, jendeari irakasten ikasi beharra baitut. Entrenatzako bolondresen laguntza behar dugu. Beraz, norbaitek laguntzeko asmoa badu, ASPACEko egoitzatik pasa dadila. Bestalde, jendea kirola egitera animatu nahi nuke, aisialdi denbora betetzeko eta lagunak egiteko oso ona baita.

Gainera, orduak eta orduak entrenatuz gero, ni bezala, urrutira hel daiteke. Zerbait nahi badute, saia daitezela beldurrik gabe".

Bere kemenari esker Miguel Angelek kirolean eta gizartean bidea irekitzea lortu du. Berari eta berak adinako adorea izan dutenei esker gizartea gero eta

"Jendeari beldurrik gabe berdinetik berdina hurbiltzeko eskatuko nioke"

sentsibilizatuagoa dago. "Alde batetik bestera ibiliz, jendeak minusbalotasunaren gainetik pertsona ikustea lortu dugu. Aulki elektrikoa oso lagungarria izan zaigu, jada ez baitugu inor atzetik eraman behar". Imanol Miguel Angelekin bat dator. "Geroz eta gizarteko esparru gehiagotan presentzia lortzea oso garrantzitsua da. Honela jendeak gauzak egiteko gai direla ikusten du eta harremana sortzen da".


Dena den, Miguel Angelek zenbait jenderen jokoaerak mindu egiten duela

aitortu digu. "Batzuek gurgildun aulkian noalako haurra izango banintz bezala hitz egiten didate eta 42 urte ditut jada. Beste askok agurtu eta nik ezer esan aurretik alde egiten dute. Jendeari beldurrik gabe gugana berdinetik berdinerara hurbiltzeko esango nioke. Esandakoa ulertu arte behar adina aldiz errepikatzeko prest gaude". Imanolek Miguel Angelen eskaera ez dela betetzen erraza onartzen du. "Guztionez da zaila harremana hastea baina, askotan ulertzen ez zaien arren, ahalegina egin behar da. Garun elbarrituek ere badakite aurrean dagoen eta ulertzen ez dien hori oso gaizki pasatzen ari dela, baina ohitzen zoazen heinean hesia hautsi egiten da. Beldurra galdu eta pazientzia pittin bat izan behar da".

Oraindik integrazio mailan lan handia lan handia dagoen arren egiteke, Miguel Angelek bidea ireki eta onespina lortu du gure bi herriotan. Bere lanari esker ondo merezitako hainbat omenaldi jaso ditu. 1996an, Atlantako olinpiaden ostean, bi omenaldi jaso zituen: bata Iñaki Urdangarini eta berari eskaini zitzairen Zumarragan eta bestea Santi Perez Diego Garzia zenaren entrenatzailearekin batera jaso zuen Urretxun. Azken omenaldia aipatutako irailaren 28koa izan zen. "Omenaldiek asko hunkitu naute, baina ez dut uste egindakoak hainbeste omenaldi merezi dituenik. Urte hauetan guztietan lagundu naute-nei eskerrak eman nahi dizkiet: Dordoka taldeari, entrenatzaileei eta ASPACEkoei eta familia-ri, zerbait egin edo nonbaitera joan nahi izan dudana bakoitzean erraztasun guztiak eskaini baitizkidate. Urretxuko Udalarari ere eskerrak eman nahi dizkiot, hasieratik Dordoka taldeari lagundu baitio".



Miguel Angel Gomez eta bere taldeko lagunak, Lizeo azpian entrenatzen.



Javier Aguado Goñi

Azken urteotan Urretxun gertatu den berri duen norbait bada, hori Javier Aguado dugu. Izan ere, Javierrek 27 urte daramatza DV egunkarian Urretxuko kronika idazten. "Elgarrestak lan hau eskaini zidanean ikasten ari nintzen eta saltsero samarra nintzen eta dirua behar nuenez... hartzea erabaki nuen". Orduetik makina bat kronika idatzi ditu, baina Javierrek ez du bere burua kazetaritzat hartzen. "Bere lana ahalik eta ondoen egiten ahalegintzen den prentsa kolaboratzailea naiz. Noizbait uzten badut, nahi dudana idazten uzten ez didatelako izango da".

Javierrek idazten dituen kronikez zer edo zer nabarmentzerik bada, Urretxuri buruz bihotz-bihotzez idazten duela da. Izan ere, Javier urretxuar peto-petoa dugu. Berari esker Urretxuk mineral eta fosilen museoa du eta urtero Mineralogia eta Paleontologia Astea antolatzen da.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Garai hartako haur guztien moduan, misiolaria, futbolaria, txirrindularia...

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Denbora gutxi dudanez, familiarekin eta lagunekin egotea atsegin dut.

-Bizitzeko toki bat?

Urretxu.

-Zein albiste ematea gustatuko litzaizuke?

Euskadiko egoera normalizatua dagoela.

-Eman duzun albisterik gozoena?

Urte hauetan guztietan poztasun ugari izan dira. Iparragirreraren gorpuzkinaren lekualdatzearen lekukoa izatea oso pozgarria izan zen niretzat. Garaikoetxea lehendakariaren hitzak zuzenean ematen izan nintzen Radio San Sebastianentzat.

-Eta mingotsena?

Hauetakoak ere asko izan dira. Ezagutzen nuen jendearen heriotzaz mintzatu beharra, esaterako, oso gogorra izan da.

-Egungo urretxuar handi bat?

Ez daude esku bateko behatzak betetzeko adina, baina bai bat bakarra ez aipatzeko adina.

-Nor gustatuko litzaizuke elkarrizketatzea?

Edadeko jende asko, baina batez ere Juan Jose Arozena. Urretxuko historiari buruz asko zekien eta, zoritxarrez, espero baino lehenago joan zitzaigun.

-Zein da zure ametsetako minerala?

Tanzanita kristalizatua. Bizitza guztian irabaziko dudana-rekin ere ezingo nuke erosi.

-Zer berrikuntza sartuko zenuke museoan?

Ordenadore bat jarriko nuke interaktiboa izan dadin eta ibilbide geologiko-turistikoa sortzea gustatuko litzaizuke.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Biak.

-Egindako azken oparia?

Errusian eskatu nuen bat oraindik heldu ez denez, emazteari oparitu diodan xigorgailua.

-Eta jasotakoa?

Familikoek oparitu didaten bideokamera. Poz handia eman dit.

-Data bat?

Amaren heriotza eguna.

-Neska eta mutil izen bana?

Ainhua eta Maite, mutila nahi eta neska atera baitzen (berdin zait, e!).

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Berria eta Otamotzeko harpideduna naiz eta DV ere irakurtzen dut, noski.

-Gustuko telebista saioa?

National Geographic-ek egiten dituen guztiak. Azkenaldian Lo + Plus ere ikusten dut.

-Bereziki gorroto duzuna?

Txutxumutxu saioek nire onetik ateratzen naute.

-Liburu bat?

Toti Martinez de Lezearen "La calle de la judería".

-Filme bat?

Bertako zineklubean bota zuten "Amor por compasión".

-Gustuko abestia?

Roberto Carlos-en "Yo quiero amigos".

-Soinu bat?

Ohean nagoenean euria eta haizea entzutea atsegin dut.

-Usain bat?

Laranjondo-lorearena (azahar).

-Janari bat?

Paella.

-Ura ala...

Errioxako ardo on bat.


307 SW



PEUGEOT
ZERBITZU OFIZIALA

HEG ALDE AUTO

Mugitegi, 27 URRETXU - ☎ 943 72 51 37 / 943 72 58 64



oskarbi

oinetakoa

udazkena 03

Secundino Esnaola 8, ZUMARRAGA
Kale Nagusia 34, BEASAIN
Kale Nagusia 25, ORDIZIA

